

Lizarran, 2004.eko irailaren 17an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Adolfo Arejita,
Jean Louis Davant,
Andres Iñigo,
Patxi Ondarra,
Txomin Peillen,
eta Pello Salaburu euskaltzainak,

Juan Jose Zearreta, kudeatzailea eta Pello Telleria, idazkariordea, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: J. A. Arana-Martijak, ahala J.L. Lizundiari; M. Azkaratek, ahala P. Salabururi; P. Goenagak, ahala P. Salabururi; B. Oihartzabalek, ahala J. Haritschelharri; P. Xarritonek, ahala J. Haritschelharri.

Batzarra goizeko 10,10ean hasi da Lizarrako Udaletxearen batzar aretoan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

Bilkuraren hasieran, Maria Josefa Fernández-ek, Lizarra herriko alkate andreak, euskaltzainak agurtu ditu.

1. Aurreko akta onartzea: oharrik gabe onartu da.

2. Hizkuntza gaiak.

2.1.1. Gipuzkoako herri izendegia (4. zerrenda). Urola-Kosta, onartua.

Andres Iñigok aurkeztu du, *aiar* herritar izenaren lekukotasunaz eta Bidania herri izenaren azken –a erantsiaz ohar batzuk eginez.

Zumarragar herritar izena dela eta, Patxi Goenagak P. Salabururen bidez egindako oharrari buruz –berak *zumarragatar* entzuna du– A. Iñigok eta J.L. Lizundiak argitasunak eskaini dituzte, lekukotasunekin.

Zerrenda ontzat eman da

2.1.2. Gipuzkoako herri izendegia (5. zerrenda). Debarroa. A. Iñigok aurkeztu du, kontsonantearen ondoan -a erantsia duten toponimoen deklinazioaz oharrak eginez. Euskaltzain batzuek beren iritzia eman dituzte.

2.1.3. Onomastika: Euskal Herria izenari buruzko araua banatu da, P. Salaburuk *aizkol apustu* hitzari egindako oharrarekin. (*aizkol apustu* ‘aizkora apustua’).

2.2. Hiztegi Batua: P. Salabururen zuzendaritzapean *b-berriz* zerrendari egin zaizkion oharrak aztertzen eta erabakitzen segitu da, *batzuan jarri-tik baratxuri*–rainoko oharrak ikusi eta onartuz.

3. 2005.eko aurrekontu egitasmoa. Juan Jose Zearreta kudeatzailea, bilkura-are-tora sartu eta aurreko bileran emandako aurrekontuei buruz bi ohar (P. Salaburu eta I. Sarasolarenak) eta zenbait aholku jaso dituela adierazi du, euskaltzainen artean banatu den laburpen batean bilduak. Bi euskaltzainon oharrak onartu dituela argitu ondoren, laburpeneko egitasmo, kostu eta finantzabideak ahoz ere azaldu ditu. Azkenean, kudeatzaileak onarpena zatika egitea eskatu du. Egitasmo arruntak eta iraunkorrak, besterik gabe onartu dira.

Aribideko egitasmoen atalean P. Salaburuk Gasteizko toponimiaren finantziarioz galdetu du. H. Knörrek erantzun dio. J. Haritschelharrek, argitalpen bereziak direla eta, galdera egin du EHUrekiko hitzarmenaz; aurtengo hitzarmena laster burutuko dela erantzun zaio. P. Salaburuk egitasmo berri berezien balioespina egiteko baremoaz galdetu du. J.J. Zearretak erantzun dio.

A. Urrutiak gogoratu du egitasmo bereziak finantza-iturriek jartzen dituzten be-behar eta argitasunen baldintzapean egin behar direla, eta beraz onarpena behin-behinekoa izanen dela nahitaez. Hau kontuan izanda, hauek ere ontzat eman dira.

J.L. Lizundiak proiektu batzuk salgarriagoak eta finantziatzeko errazagoak direla beste batzuk baino gogoratu du, zer nori proposatzeko eta diru-iturri bila joateko.

J.J. Zearretak txostenak urriaren 10erako bidali beharko direla gogoratu du. Ondoren, agintariekin adostu beharko dira eta osoko batzarrera berriz ekarri. Lehen sei-hilabeteko dietak ere berehala ordainduko direla iragarri du.

4. Esku artekoak.

Euskaltzainburuak irailaren 16an Bartzelonako Forum-eko bileretan izandako partaidetasuna azaldu du eta bertan «Euskara eta Euskaltzaindia Europako hizkuntzen mosaikoan» izeneko hitzaldia euskaraz eskaini zuela. Txosten hori J.L. Lizundiaren laguntzaz egin zuela adierazi du.

A. Zubikarainen heriotza dela eta, Zuzendaritzak euskaltzain ohorezko horren hilberri-txostena A. Urrutiaren esku uztea erabaki duela jakinarazi du J. Haritschelharrek.

Andres Iñigok irailaren 8an Nafarroako Parlamentuan izandako partaidetasunaren berri eman du eta han eginiko hitzaldiaren kopia euskaltzain osoen artean banatu da.

Era berean, A. Iñigo nafar euskaltzainak bi ohar egin ditu: bata, Euskaltzaindiak unibertsitateekin hitzarmenak egitea komeni dela, akademiak antolatutako ikastaro, jardunaldi eta kultur ekitaldietan parte hartzen dutenek etorreragatik kredituak onartu eta baliokidetuak era egokian izan ditzaten, erakunde horiekin aurretik akordioak gabe ez baitzaizkie onartzen. Bestean, *Euskera* aldizkarian argitaraturiko artikuluen separatetan ere ISSN, ISBN eta lege-gordailua agertzea eskatu du, artikuluen horien separatik mezimenduzat aurkezten direnean, aipaturiko datu horiek gabe, epaimahai batzuek bazterten dituztelako. Eskari biak aintzat hartu dira.

P. Xarriton euskaltzaina erori eta min hartuta egon dela adierazi du Euskaltzainburuak, baina zorionez orain ongi aurkitzen dela.

Aita Zavala euskaltzainaren anaia jesuita, Vicente Zavala, Durangon bizi zena, hil dela jakinarazi da. Doluminak igortzea erabaki da.

5. Banaturiko argitalpenak:

Batzarraren bukaeran liburu hauek banatu dira:

– Jean-Pierre Arbelbideren *Erlisioea*, Nafarroako Gobernuarekin batera Euskaltzaindiak argitaratua.

– Zuzenbidearen Euskal Akademiaren *Aldizkaria*. 2003.eko azaroa. 1. zenbakia. Zuzenbide Akademiak euskaltzain osoei opetsia.

– *Ni kazetaria naiz*, Jean Hiriart-Urrutirena. Labayru Institutuaren oparia euskaltzain osoentzat.

Bilkura 2,27an amaitu da.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria